

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

4871

EBAZPENA, 2022ko urriaren 26koa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, Euskal motoziklismo federakuntzaren Estatutuetan aldaketak onartu eta EAeko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzen dituen.

Euskal motoziklismo federakuntza EAeko Kirol Elkarteen eta Federazioen Erregistroan inskribatu zen 1986ko apirilaren 30ean, 93. zenbakiarekin. Federazioaren Estatutuen aldaketak aurkeztu dira orain.

Euskal motoziklismo federakuntzak 2022ko urtarrilaren 27an egindako Ezohiko Batzar Oroko-reen bere Estatutuen 4. artikulua moldatzeko erabakia hartu zuen, eta onarpen hori agiri bidez frogatu da.

Estatutuen aldaketak bat datoz urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan eta Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legean xedatutakoarekin.

Ondorioz, nire eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Euskal motoziklismo federakuntzaren Estatutuen 4. artikuluen aldaketa onartu eta EAeko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzea. Artikuluaren erredakzioa honako modu honetan geldituko litzateke:

4.– artikulua.– Federakuntzaren egoitza helbide honetan dago: Donostia / San Sebastián, Anoeta pasealekua, 7, 3 bulegoa, 20014.

Bigarrena.– Legez ezarritako epean jakinarazteko agindua ematea.

Hirugarrena.– Ebazpen hau euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honek ez du amaitzen administrazio-bidea eta, bere aurka, pertsona interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuari hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 26a.

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendaria,
GORKA ITURRIAGA MADARIAGA.